



zer du txistuak

Lagun on baten eriotzak eragiñazi ziran emen azaltzen detan bertso xorta au; 1979.go Epaillaren 25 zan eguna; goiz artan Errenderiko Batzokiak askunde berri zuan, Meza Nagusian abeslari tartean txistulariak ziran, gero pillota jai aldi berezian ere bai. Auen artean bereziki parte artu zuan Jose Ignacio Montes Donostiar txistulariak.

Bere saioa amaitu ondoren etxeruntz zijoalarik ezbearezko eriotz batek (berebil batek jo zuan) mundu ontatik eraman zuan.

Une artan bere lagun onenak txistu eta tanboliña zituelarik eta berakin elkaturik azken arnasa eman zuan.

Bere eriotzaren lenengo urte mugan, asmo bat izan genduan bere omenez lantxo batzuek egin eta bere bizitzaren berri ematea, bañan gauzak oker jo ondoren argitaratu gabe gelditu ziran bertso auek tartean ziralarik.

Orain Oarso aldizkariak bertarako lanak azaltzeko Musika gai bezela ipiñi digu eta argaitik bertso auek azaltzen ditut, era berean nere lagun Jose Ignacio munduan zear txistua goiko mallan jarri zuan txistulariari gorasarre egiñik.

Nundikan dator txistu soiñua, nundik dator bere otsa
 Artzai txirulak ardi artean, azaldu zun bere poza
 Mendia zegon ixiltasuna, biurtu eresi utsa
 Ordutik ona txistu soiñuak, munduan zear dabilta.
 Mendietatik kalietara, etorri ziñan soil soillik
 Asiera artan ibiltzekotan, gure artean bakarrik
 Lagun bezela zure alboan, tanbolintxo bat arturik
 Kalerik kalez zure soiñua, entzun arazitu nairik.
 Ordutik ona txistu alai, entzuten degu goizean
 Goiz txorien abestiakin, elkaturik poz batean
 Amets gozoan dagoztenairi, bizkor esnatu naiean
 Zeruko aitai agur egiñaz, lenbiziko otoitzean.
 Nun ez da entzuten zure eresi, ain alai ta paketsua
 Nun ez bear une danetan, alaitzen gaztei osua
 Nun ez dantzaia erabiltzeko, marka bear dan pausua
 Nun ez bear dan alde danetan, agurtzen gure Jainkoa.
 Zer du txistuak bera entzunik, pizteko eusko biotzak
 Jotzen bai dute jakintsuenak, apaiz eta gudariak
 Berdin andre zar eta aurtxoak, aundikitz aita semeak
 Edertasun au ikus ondoren, ezan zer duan txistuak.
 Zeruan ere izango ditu, txistuak bere lekuak
 Ainbat entzunik an aigeruak, Euskaldunen eresiak
 Alaitasunez ugari eta, maitetasunez betiak
 Zeru orretan egongo dira, Euskaldun txistulariak.

(Xabier)

Errenderi'n 1983-6-1